

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak arrakasta izateko zenbait baliabide beharrezkoak dira.

Gure negozioa, gainerakoak bezala, zabaltzeko finantza baliabideak eskuratu beharko ditugu eta hainbat faktore hartuko ditugu kontuan.

Alde batetik guk diru kopuru bat jarri beharko dugu, eta bestetik (BBVA bankuan) kreditu bat eskatuko dugu. Horrez gain, diru hori materiala erosi ahal izateko ere erabiliko dugu. Hala ere jarritako diru kopuru hori segituan bukatuko zaigu, beraz, ezinbestekoa izango zaigu nahiko diru lortzea, alokairua ordaintzeko, materiala eskuratzeko edo edozein erosketa egiteko; eta horretarako garrantzitsua da enpresak ondo funtzionatzea. Beraz horretarako norberak zer eginkizun duen ondo bereizi behar dugu, bakoitzak abilezia bat du, ondo etorriko zaiguna aurrera ateratzeko.

Gure enpresak alde batetik bestera ibiltzeko gutxienez kotxe bat izatea komenigarria da, eta zorte onez ekintzaile batek, lkerrek, kotxe bat du, beraz oso ondo etorriko zaigu bilerak beste leku batean baditugu garraiatzeko.

Gure enpresaren eskubideei dagokionez ez gara arduratu behar, zorionez gutako bik, Eiderrek eta Ainarak, zuzenbidea ikasi dute, eta beraiek arduratuko dira, horrela gobernuarekin ez dugu arazorik edukiko. Beraz izugarrizko abantaila iruditzen zaigu, izan ere kostuak ez ditugu izango kasu honetan eta gainera taldeko pertsonak dira.

Eskuragarritasuna ziurtatzeko, web orrialde bat sortuko dugu, bertan gure produktuaren xehetasunak azalduko ditugu eta bertan bezeroek gutaz jakin beharrekoa izango dute eskura. Taldekoek ez dugu webguneei buruz ezagutzarik, horregatik gure lagun batek lagunduko digu honetan. Guk informazioa emango diogu jarri nahi dugunaren inguruan eta berak pentsatuko du zein den modu egoki eta erakargarriena. Horrez gain, sare sozialetan ere, gure produktua zabalduko dugu, hori gure kabuz egin dezakegu taldekide guztiak oso ondo moldatzen garelako.

Giza baliabideak ere garrantzitsuak izango dira proiektua aurrera eramateko. Sormena, ezagutza eta gaitasun komertzialik gabe ez goaz inora. Lau kide gara eta guztion artean hiru ezaugarri horiek betetzen ditugu. Eiderrek gaitasun komertzial hori du, harremanetarako trebea da, beraz bera arduratuko da bezeroetaz. Sormenari dagokionez, Ainarak irudimen handia du, beraz bera izango da buruari eragingo diona. Xabier eta Iker trebeak dira teknologiarekin beraz beraiek esango dute zer komeni zaigun haurren kotxeetan ipintzeko, zein izango den pantailarik aproposena, sentsoreak zein lekuetan ipini behar ditugun ahalik eta zehatzenak izateko...beste gauza batzuen artean.

Xabierrek eta lkerrek ingeniarietza teknologikoa eta inteligentzia artifizialeko ikasketak egin dituzte, beraz beraiek bik arduratuko dira pantailak egiteaz eta karroetan jartzea beste langile batzuen laguntzaz.

Amaitzeko, gure enpresak hainbat baliabide fisiko erabiliko ditu. Adibidez, enpresako ordenagailua (web-a erabiltzeko) eta enpresako mugikorra (bezeroekin edo kontaktuan gauden beste enpresekin harremanetan jartzeko) eta sistema informatiko hauek eskuratzeko ez dugu arazorik, izan ere, taldekide baten amak erabiltzen ez duen primerazko mugikorra du, beraz kostu bat gutxiago. Ordenagailuak ere baditugu, bakoitza bere ordenagailua ekartzeko prest dago.